

HUTSEN ZUZENKETA

Elhuyar Zientzia eta Teknologiaren iraileko zenbakian, akats bat izan zen 40. orrialdean. Egoitz Salsamendi biologoari egindako elkarrizketaren izenburuak honela zioen: “Primateon arbasoak dira saguzarrak, eta hurbiltasun horrek deserosotasuna sortzen digu birusen gain”, eta hori ez zen Salsamendik esan zuena. Horren orde, honako izenburu hau zegokion elkarrizketari: “Primateen gertuko animaliak dira saguzarrak, eta hurbiltasun horrek deserosotasuna sortzen digu birusen gain”.

Antiprotoi-eraztun bat aurkitu dute Lurraren inguruan

Jakina da partikula asko geratzen direla Lurraren eremu magnetikoan harrapatuta; eta Europako astrofisikari-talde batek ikusi du, Pamela sateliteari esker, antipartikulak ere badaudela han harrapatuta, antiprotoiak hain zuzen. Sateliteak asko detektatu ditu, kalkulu teorikoek iragarritakoak baino gehiago. Atmosferaren goialdeko molekuletatik sortzen dira, izpi kosmikoen talken ondorioz. Talkek partikula asko eta antipartikula gutxi batzuk askatzen dituzte. Elkar ukitzean, partikulak eta antipartikulak bata bestea suntsitzen dutenez, zientzialariek ez zuten espero antipartikulak detektatzea. Baina, Pamelaren datuen arabera, antipartikula batek irauten du suntsitu gabe irauten duten milaka partikulako. Iraun duten antiprotoiek eraztun bat osatu dute Lurraren inguruan. ●

Oxigeno faltak eragiten du beldarren muda



ARG.: DANIEL SCHWEN

Beldarrek lau-pabost aldiz berritzen dute beren exoeskeletoa, tximeleta bihurtu baino lehen. Baina nola dakite noiz den horretarako garaia? Duke Unibertsitateko ikertzaileek argitu dute oxigeno-faltak erabakitzen duela une hori.

Proceedings of the National Academy of Sciences aldizkarian argitaratu den ikerketan, *Manduca sexta* beldarren arnas aparatua neurtu zuten ikertzaileek, eta ikusi zuten beldarren arnas aparatua tamaina finkoa duela hazkuntzaren garapen-fase

bakoitzean. Hau da, beldarren gorputzeko gainerako atalak hazi egiten dira; ez, ordea, arnas aparatua. Ondorioz, denborarekin intsektuak oxigeno-maila txikiegia du bizitzen jarraitzeko, eta hori aldatzeko modu bakarra exoeskeletoa berritzea da. ●